

BALIO PROPOSAMENA

a. Ze behar edo arazo konpontzen duzue?

Gure taldea pentsatutako ideia "Protesi hautsien express konponketa" izango da.

Goizetik arratsaldera behar diren konponketetarako lan espezifikoak edo lehentasuna eman behar zaien lanetarako laborategi berezia sortu dugu. Horrela, laborategiko lana ez da atzeratzen, ezta eteten ere.

Era berean, laborategi txikiak zein handiek behar laguntza behar izanez gero, dituzten konponketak guri notifikatu, gure laborategira bidali eta gure langileak konponketa egingo dute, horrela, lehen - bailen bidaliko da eginda.

Lan egiten den laborategiarekin erraztu behar dizkigute, bai pazientearen beharrezko datuak, bai pazientearen ahoko ereduak edo inpresioak igeltsu bidez edo STL bidez, eta egin beharreko lanaren informazioa, materiala.

b. Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Oraindik ez da zerbitzu mota hau eskaintzen laborategiei, horregatik, konponketa azkarrak behar duten bezeroak guri ordaintzeko prest egongo dira, haien beharrak ebazen baitugu. Gainera, laborategietan normalean lana atzeratzen denez, gure laborategiaren zerbitzua kontratatzeko prest egongo dira, haien langileak erosoago eta lasaiago ibiltzeko.

Prezioari dagokionez, zerbitzu azkarra emanez gero, hau da, konponketak egun bertan izango baitira, prezioa estandarra baino altuagoak izango dira. Beraz konponketa azkarragoak behar dituzten eta ordaindu ahal izango duten bezeroek, ahalbidetuko zaie zerbitzu hau.

Beste ezaugarriak aintzat hartuta, berdin mantenduko dira, esterako, diseinua, segurtasuna, estetika, atxikipena, oklusioa, etab.

Hori guztia kontuan izanda, esan dezakegu gure proiektua ezaugarri **kualitatiboak** bermatuko luke. Gure zerbitzuak protesirik gabe bizitza normala egin ezin duten pazienteentzat inguruan duen ikuspegiarekin dago lotuta. Hortaz, gure ideiarene helburu nagusia da, pazienteak ahalik eta denbora gutxien egotea protesirik gabe, ahoko anatomia ez aldatzeko eta arazo larriagoak saihesteko. Nahiz eta prezioa altuagoa izan (zerbitzu berezia baita), guk ematen diogun garrantzia denbora gutxienetan egitea lana eta ondorio edo hobeagoa berak izatea da.